



## ALKATETZAREN MEMORIA: 2024KO AURREKONTUA

2024. ekitaldiaren Aurrekontuak onesteko bideratu den espedientearen barruan, nahitaezkoa da Alkatetzaren Memoria hau sartzea.

Memoria honen helburua da udal gobernu-taldeak 2024. ekitaldirako prestatu duen aurrekontu-zirriborroaren partidarik esanguratsuenak banakatu eta argitzea, eta Alkatetza honek gainerako udal-talde politikoekin egin duen negoziazio-prozesuaren berri ematea, aurrekontuok onets daitezzen, agiri honen azken zatian behar bezala azaltzen dena.

Negoizazio hori —beti bezala, atsegin dut gai hau gogoratzea— alde batetik, gobernu-talde sozialistak Udalaren eguneroko kudeaketa bultzatzeko duen borondatearen isla da, ahal den neurrian, Udal honetan oposizioko alderdi politiko guztiekin edo batzuekin akordioak eginez. Elkarrizketarako eta negoziatzeko jarrera, gobernu-talde sozialistaren egunerokotasunean konstante bat den jarrera.

Eta bestetik, gutxiengoan gobernatzen dugula jakinda ere, behar logiko bati erantzuten dion negoziazioa da: udal-aurrekontuen onarpena bermatzeko behar adinako sostengua izatea, eta, horrela, hiri-proiektuarekin aurrera egiteko funtsezko kudeaketa-tresna izatea, egungo gobernu-taldea 2023ko maiatzaren 28ko udal-hauteskundeak irabaztera eraman zuen proiektua.

Aurrekontu-akordio bidez aurkeztu den zirriborroari erants dakizkiokeen ekarpenek aberastu egingo dute berez ere Eibarko beharrei egokituta dagoen aurrekontu-proposamen hau, udal-gobernu honen ekimenei beste ikuspegi osagarri bat emanez, gure herriaren eraldaketa bultzatzen eta gure herriko bizilagunen bizi-kalitatea hobetzen lagunduz.

Aurrekontu hauek 2023-2027 agintaldiaren bigarren urteari dagozkio, eta iazko maiatzeko hauteskunde-garaipenaren ondoren egin diren aurreneko aurrekontuak ditugu.

Behin hona iritsiz gero, 2021eko martxoaren 13tik hona Eibarko alkate izatearen ohorea eta erantzukizun handia nabarmendu nahi nituzke, eta Eibarko herritarrei eskerrak eman nahi dizkiet, nola ez, gobernu sozialistaren egungo taldeak ordezkatzan duen hiri-proiektuari maiatzean emandako babesagatik.

Aurrekontu-zirriborroari dagokionez, honen asmoa eta helburua ezin zitekeen bestelakoa izan: hiri handi honek merezi duen bezala, herritar guztien zerbitzura egotea.

Proposamenak, ezinbestean, azken udal-hauteskundeetan oraingo gobernu-taldeari garaipena eman zion hauteskunde-programaren ildoari jarraitu behar dio.



Azken urteotako Alkatetzaren Memoriatan ez bezala, COVIDaren pandemiari buruz egingo dudan aipamen bakarra hauxe baino ez da izango: birusak gure bizitzetan jarraitzen badu ere, 2020an gizarte gisa kolokan jarri gintuen osasun-krisia gaindituta dago, zorionez, eta iraganeko kontua da.

Hala ere, haren ondorioetatik maila guztietan errekuera gaitzen, denbora gehiago beharko dugu. Lan horrek, udal-kudeaketari dagokionez, Next Generation Funtsak deiturikoen laguntza eta bultzada izango du. Funts horiek lortzeko eta udal-proiektuetan aplikatzeko, gogor ari dira lanean udal-arlo guztiak, eta hainbat proiekturi ekiteko aukera emango digute, izan ere, laguntza horiek gabe, epe laburrean behintzat, ezingo lirateke landu.

Ubitxa kalea San Kristobal auzoarekin lotzen duten igogailu biak; Torrequako ambulatorio zaharra zaharberitzea, energetikoki eraginkorra izango den eraikin bat izan dadin eta, beste zerbitzu batzuen artean, Amañako pertsona edadetuenzako etxe berria jartzeko; edo, Txonta auzoan dagoen eraikinaren zati handi baten birgaitze energetikoa. Proiektu horiek guztiak Next funtsek finantzatutakoak dira, eta udal-gobernu honek kudeaketan erakutsi duen eraginkortasunaren adibiderik argienak eta nabarmenenak dira.

Era berean, apirilaren 21ean izango diren hauteskunde autonomikoen ondoren zehaztuko bada ere, Debabarrena eskualdea Lehentasunezko Jarduketa Gunea (ZAP) izendatzeak aukera emango digu eskualdea osatzen dugun udalerrioi Eusko Jaurlaritzatik eta Gipuzkoako Foru Aldunditik datorren finantzaketa gehigarria lortu eta proiektu traktoreak gauzatzeko, gure herritarrentzat funtsezkoak direnak.

Hala ere, adierazi dudan bezala, udalerriek ez dugu informazio zehatzik ez proiektuei buruz, ez eta horiek gauzatzeko jasoko dugun finantziazio zehatzari buruz ere, eta, jakina, urte honetako eta hurrengo urteotako udal-aurrekontuan islatu beharko litzateke. Horregatik, ezin dut zehatzagoa izan, nahiz eta uste dudan, zuhurtzia osoz, hauxe dela une egokia hori azaltzeko eta berariaz jasota uzteko.

Ezbairik gabe, berri ezin hobea da Eibarko herriarentzat eta, oro har, Debabarrenarentzat; izan ere, finantziario horrek proiektu traktoreak, eraldatzaileak eta beharrezkoak sustatzen lagunduko du, gure herritarren bizimodua eta bizi-baldintzak hobetzeko.

Laburbilduz, eta aurreko guztia kontuan hartuta, 2024ko aurrekontuen zirriborro honek gure kudeaketaren normaltasuna berreskuratzen jarraitzeko beta ematen digu, beti Udal honen ezaugarri izan den inbertsio-pultsua berreskuratzen uzten digu, eta hiria modernizatzeko eta hobetzeko obra garrantzitsuak gauzatzeko planak abian jartzeko aukera ematen digu, hurrengo ataletan zehaztasun gehiagorekin aztertuko den bezala.

Azken finean, guztira 47.238.430,61 euroko zenbatekoa duen aurrekontu-zirriborroa aurkezten dugu, Eibarko herritarrek gaur egun dituzten azpiegiturak, instalazioak eta zerbitzuak mantentzeko eta beste batzuk sortzeko; ekonomia- eta ekoizpen-sarea babesteko; gure hirian dugun elkarre-sare ugaria eta askotarikoa



laguntzeko; eta gure hiri-ingurunea etengabe hobetzen jarraitzeko, Eibar hiri irisgarriagoa, erosoagoa eta bizigarriagoa bihurtuz. Jarraian azaltzen dira diru-sarreraren eta gastuen kapituluak, aurrekontu-zirriborro honen zehaztapenen eta berezitasunen ikuspegi orokor egokia ematen dutenak.

## **DIRU-SARRERAK KAPITULUAREN EGOERA**

Aldez aurretik eta 2024. ekitaldirako aurrekontu-zirriborroan jasotako diru-sarreraren aurreikuspena aletzen hasi baino lehen, 9. Kapitulua, Finantza-pasiboak, aipatuko dut labur-labur. Kredituaren bidez, Kapitulua horrek aukera ematen du aurrekontuak behin betiko orekatzeko, eta, gure finantza-egoera orokorrari begira egokia den zorpetze arduratsu batean oinarrituta, gure diru-sarreraren ahalmen hutsak egiten utziko lituzkeenak baino gastu eta inbertsio gehiago onartzeko.

Hori horrela, eta 9. Kapituluari dagokion zenbatekoa kontuan hartu gabe (2024rako 9.884.880,64 euroko aurrekontua du), aurtengo aurrekontuen zirriborro honek 38.975.100,12 euroko diru-sarrerak aurreikusten ditu; 2023ko ekitaldian, berriz, 37.033.028,31 eurokoa zen. Horrek esan nahi du aurreko urtean baino 1.942.071,81 euro gehiagoko diru-sarrerak aurreikusten direla.

Gehikuntza hori, funtsean, 2024rako aurreikusitako Foru Funtzari zor zaio, 24.066.805,84 eurokoa, Gipuzkoako Foru Aldundiak duela gutxi emandako aurrekontuak erakusten duen bezala. Zenbatekoa 2023rako aurreikusitakoa (22.739.741,27 euro) baino askoz handiagoa da eta hori guztia 4. Kapitulan (Transferentzia arruntak) jaso da, aurreraxeago azalduko den moduan.

Atal honetan, orain arte egin den moduan, Foru Funtzak Gipuzkoako udalerrientzat duen garrantzia azpimarratu behar dugu, gure herriaren 2024rako aurrekontuan jasotako diru-sarrera guztietan izango duen eragina ekitaldiaren aurrekontuan jasotako diru-sarreraren % 50ekoa baita.

Eta, bestalde, azpimarratu eta nabarmendu nahi dut, ia hamarkada bat izoztuta egon ondoren, tokiko zergek izandako igoera. Izan ere, neurri txikiagoan bada ere, igoera horri lagundu arren, igoera orokortua izan ordez, oso neurritzkoa eta selektiboa izan da, azterketa zehatz eta xehe baten emaitza, igoera ahalik eta eraginkorrena izan dadin eta herritar guztiengan ahalik eta eraginik txikiena izan dezan.

Aurrekoaz gain, kontzienteki hartutako erabaki politikoek, eta duela urte batzuetatik hona Eibarko herritarren onurarako izan direnek ere —hala nola Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga ordaintzetik salbuestea gure etxebizitzetan, fatxadetan, teilatuetan edo auzo-igogailuetan egiten ditugun obra txikiak— murriztu



egiten dituzte Udalaren diru-sarrerak, baina Alkatetza honek bidezkoztat eta egokitzat jotzen ditu herritarren alde hartutako erabakiak direlako.

Aurrekoa ezertan galarazi gabe, Udalak nahi izan du 2024an Zuzeneko Diru-sarreraren 1. Kapituluaren 2023an lortutakoaren antzeko finantzaketa eskuratzea, eta 2023ko ekitaldiarekin alderatuta, 37.650,22 euro bakarrik jaitsi dira. OHZ, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko zerga, Gainbalioa eta Jarduera Ekonomikoen gaineko zerga: horiez ari naiz.

Era berean, 2. Kapituluak (Zeharkako zergak), EIOZ (Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga) diru-sarrerei dagokienak, 2024rako 300.000 euroko diru-sarrera aurreikusten du eta 2023rako aurrekontuan zenbatekoa 550.000 eurokoa izan zen. Murrizketa horren arrazoia hau da: Aurrekontuan Aurreproiektua egiteko unean ez dugula uste jardunaldi honetan Estaziñoko bigarren fasetik harago etxebizitzak sustatzeko jarduerarik egingo denik.

Nolanahi ere, bi partidetan izandako murrizketa konpentsatu egingo da 3. Kapitularako (Tasak eta bestelako diru-sarrerak) aurrekontuan sartutako zenbatekoaren igoeratik (2.839.352,88 euro 2024an, eta 2.531.708,48 euro 2023an), hau da, 307.644,40 euroko aldea, adierazi bezala, aurreko bi kapituletako diferentzia estaltzen duena.

3. Kapitulari dagokionez (tasak eta bestelako diru-sarrerak), igoera nabarmena izan du aurreko urtearekin alderatuta: 2023an 2.531.708,48 euro izatetik 2.839.352,88 eurora igaro da 2024rako aurrekontuan. Gogora dezagun 2023ko aurrekontuan kapitulu honek % 60ko igoera izan zuela (2.531.708,48 euro 2023an, 1.529.809 euro 2022an), Kirol Patronatua udal-egituran sartu zelako, eta, beraz, ordaindutako pertsonen emandako zerbitzuen tasak kobratu zirelako. Joera goranzkoa du, baina aurreko urtean baino askoz apalagoa.

Transferentzia arruntan 4. Kapituluaren barruan, lehen esan dudana bezala, Udal Finantzaketarako Foru Funtsa aipatu beharrean gaude.

2023. urtearekin konparatuta, % 5,84ko gehikuntza aurreikusten da kontzeptu honengatik.

Foru-ekarpen hori Aldundiak diru-bilketarako duen ahalmenaren ondorio dela kontuan hartuta, azken urteotan izandako goranzko joera horrek erakusten digu, lurraldearen egoera ekonomikoa ere hazkunde iraunkorreko bide horretan dagoela.

Bestalde, 5. Kapituluak Udalaren Ondare-sarrerak jasotzen ditu udal hiri-finken errentamendu kontzeptuan (hala nola, desagertutako IMESA Udal Higiezin Agentziak sustatutako garajeak edo Unbeko tabernako kafetegia); eta hor sartzen dira baita Ipuru kiroldegiko garajeak, Errebaleko Merkatuan lagapenezko espazioetatik eratorritako kanonak, eta gordailuen interesak, guztira, 179.531,94 euro. Atal hau, 2023koarekin alderatuta, 40.000 euro inguru gehitu da.



Bestalde, 6. Kapituluak, Inbertsio errealak eta bestelako diru-sarrerak besterentzekoak, hirigintza-jarduketetatik eratorritakoak, 50.000 euroko gehikuntza izan du 2023ko zenbatekoarekiko, 695.000 euro (2024rako 744.057,39 euro).

Aurreikusitako zenbatekoa, besteak beste, udal-ondarea saltzeari eta/edo ondareari buruzko administrazio-emakidak formalizatzeari dagokio.

7. Kapituluak, 835.598,39 eurorainokoa, maila goragoko erakundeetatik datozen kapital-transferentzietatik (dirulaguntzak) dagokie; oraingo honetan, Eusko Jaurlaritzatik eta Gipuzkoako Foru Aldunditik datozen dirulaguntzak. Horien artean nabarmentzekoa da Eusko Jaurlaritzatik irisgarritasunaren alorrean inbertsioak egiteko iritsiko dena, 500.000 euroko zenbatekokoa delako eta kapituluaren barruan duen pisu erlatiboagatik (% 60); zeinak Jardiñetako igogailuetako aurreneko igogailuaren eraikuntza-kostuaren zati bat estaliko duen.

8. kapituluak, langileen aurrerakinen partidak eta epe laburrerako eta luzerako fidantzen itzulketak biltzen dituena, ez da aldatu 2023ko datuekin alderatzen badugu; guztira 14.200 euro dira.

Azkenik, argitu beharra dago dokumentuan finantza-pasiboaren figura (9. kapituluak) jaso behar dela. Kontzeptu hori beharrezkoa da aurrekontua diru-sarrera eta gastuetan orekatu ahal izateko; izan ere, Udalaren kasuan, baliabide ekonomiko nahikoak izan arren, aurrekontu-teknikak eta lege-esparruak ez dute ahalbidetzen dokumentua egiteko erabiltzea.

## **GASTUAK KAPITULUAREN EGOERA**

Sarreran aurreratu dugun moduan, aurrekontu-proiektu honek onarpena bermatuko duten eta zuzenketen bidez islatuko diren akordio politikoen ondorioz egindako txertaketak alde batera utzita, gastua 3.000.000 euro baino gehixeago handitu du 2023ko aurrekontu-proiektuarekin alderatuta, eta 49.000.000 euro inguruko proposamenera iristen da.

Aurrekontu-teknikak dokumentua kapitulutik eta partida funtzioaletan egituratzera behartzen du, eta horrek berak, batzuetan, zaildu egiten du proposamen honekin lotu nahi diren helburuak ikustaraztea.

Era berean, kapitulu batzuk udal bat bezalako erakunde baten ohiko funtzionamendutik eratorritako betebeharren ondorio dira. Langile-gastuak, guztizko gastuaren herena dira (16.474.934,97 euro), eta funtzionamendu-gastuek, aktiboek eta finantza-pasiboek, maniobratzeko tarte txikia uzten dute, eta nahitaez bete beharreko kapitulu bihurtzen dira.



Agintaldi osoaren lehen urtean gaude, udal-gobernuko talde honek 2023ko maiatzaren 28an egindako azken udal-hauteskundeak irabazi zituenetik.

Ekitaldi erabakigarria, lehen ere aipatu izan diren bi kontuengatik:

- Lehenik eta behin, pandemia atzean utzi ondoren, funtsezkoa delako gure hirian abian jarritako Next Generation funtsen bidez finantzaturako proiektuei ekitea eta haiek egituratzea.
- Eta, bigarrenik, Debarrena eskualdea Lehentasunezko Jarduketa Eremu (LJE) izendatzearen ondorioz, Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak funtsak bideratuko dituztelako (gaur egun 24.000.000 eurotan kuantifikatuak, baina zenbatekoa handiagoa izatea aurreikusten da), eskualde honetako udalerrion proiektu traktoreak gauza ditzagun, ekonomiaren, gizartearen, kulturaren eta bertako azpiegituren garapenerako beharrezkoak direnak.

Aurrean jasotako hori, ahal den neurrian, ekitaldi honetako aurrekontuetan islatzen da. Komeni da, beraz, Aurrekontu hau aplikatuz, hiriari aurrera egiten, hobetzen eta herritarrek eskatzen dituzten beharrei erantzuten jarraitzeko balio izango duten helburuak, proposamenak eta ekimenak Memoria honetan bertan jasotzea. Eibarrek, harro sentiarazten gaituen herri izaten jarrai dezan.

Horretarako, eta Memoria hau ulergarriagoa izan dadin, nire ustez 2024ko aurrekontu-proposamen honetan jasotako ekintza esanguratsuenak xehatzen saiatuko gara.

Lehenik eta behin, **inbertsio errealeen kapitulua, egindako aurrekontu-zirriborroan, 7.056.685,81 euroraino igo da (2023an partida horren zenbatekoa 6.716.803 eurokoa izan zen)**. Diru hau guztia hiri-inguruneak hobetzeko, irisgarritasunerako eta eraikinak egokitzeko proiektuak egin ahal izateko —haien balioa nabarmentzeko eta erabilera berriak emateko— erabiliko da.

Honenbestez, 2024an:

- Torrekuako anbulatorio zaharra birgaitzeko obrak egiten hasiko gara, Amaña eta Legarre auzoek espazio anitzeko ekipamendu bat izan dezaten. Erabilera nagusia jubilatuentzako gizarte-zentro berria izango da, eraikinaren beheko solairuan kokatuko dena.



- Bustinduitarren kalearen berrurbanizazioa bukatuko dugu, 2023an hasitakoa.
- Aurrekontuen zirriborro hau onartu bezain laster, Arragueta kalea berrurbanizatzeko lanekin hasiko gara. Kale hau oso garrantzitsua da gure hirian, eta bere itxura aldatu egingo dugu, erosoagoa eta erakargarriagoa izan dadin.
- Barrena kaleko Hijos de Gabilondo ingurunea birgaitzeko eta eraldatzeko obrei ekingo diegu.
- Mutiola berrurbanizatuko dugu.
- Eta Jardiñetako aurreneko igogailuaren eraikuntza jarriko dugu martxan.

Obra horiek bat etorriko dira denboran beste obra oso garrantzitsu batzuk abian jartzearekin, hala nola Mekolako igogailu berriarena, aste gutxi barru bukatuta eta martxan egongo dena.

2023ko aurrekontuekin gertatu zen bezala, **landa-azpiegiturarako** partida 350.000 eurokoa izango da, gobernu-taldeak, 2023an, Eibarko baserriarrak ordezkatzeko dituen Andirao elkartearekin hartutako konpromisoa betetzeko, eta konpromiso horren arabera, 2027ra arte, urtero aurrekontuan sartuko dugun zenbatekoa hori bera izango da.

Gainera, urtero bezala, Eibarko ikasleek instalaziorik onenak izan ditzaten, 110.000 euro inguru erabiliko ditugu **ikastetxeek eurek eskatutako obra garrantzitsuak** egiteko. Hala, San Andres ikastetxean, aldageletako ateak ordeztuko dira, ikasgelen arteko konexioa egingo da eta patioko hezetasunak konponduko dira. Urkizu ikastetxean, komunak birmoldatuko dira eta terrazako zoladura aldatuko da, eta, Amaña ikastetxean, gelak komunikatuko dira.

Eta ia 145.000 euro inbertituko dira Zerbitzu sailetik, eta, bestelako mantentze-eta hobekuntza-lan batzuen artean, **Eibarko Klimaren eta Energia Jasangarriaren aldeko Ekintza Plana (PACES) betetzen aurrera** egiten lagunduko duten ekimenak ipiniko ditugu martxan: San Andres ikastetxeko eta Urkiko Andra Mari ikastetxeko argiak LEDekin ordezkatzeko dira, eta Amaña ikastetxeko instalazio fotoboltaikoa monitorizatzeko sistema bat ezarriko da.



Bestalde, 2023an Pagaegikorta izeneko lursaila erosi ondoren, hau da, 20 hektareatik gorako lursail bat udal-ondarean sartu eta hura eskuratzeko ahalegin ekonomikoa egin ondoren, **Ingurumeneko aurrekontua** 542.000 eurokoa da ekitaldi honetan.

Iazko Memorian Udalak gure hirian **euskararen erabilera eta irakaskuntza sustatzeko** egiten zuen inbertsioa milioi bat euro ingurukoa zela nabarmentzen zen; oraingoan, pozarren azpimarratu nahi dut aurtengoan langa hori gaintitu egin dela, aurrekontua 40.000 euro handitu eta jadanik 1.032.373.94 eurokoa delako.

Kirol Patronatua udal-egituran sartzeko prozesua osatuta eta udal kirol-instalazioen (Ipurua eta Orbea kiroldegiak, Unbe kirol-gunea eta Astelena frontoia) kudeaketa eta mantentze-lana Udalaren gain hartuta, **Kirol Arloak** 4 milioi euro inguruko aurrekontua izango du 2024an, gure hirian kirol-jarduera sustatzeko, kirol-kluben eta -erakundeen lana laguntzeko, jardueren eta ikastaroen eskaintza are handiagoa eskaintzeko eta instalazioak eta haien ekipamendua kontserbatzeko, hobetzeko eta modernizatzeko.

**Gizarte-babesaren** atalari dagokionez, udal-arlo horretako programa guztiak batuz gero, 4.976.821 eurora iristen gara, eta, besteak beste, honako helburu hauek betetzera bideratuko dira: gizarte-zerbitzuen esparruan arreta jaso dezaketen gizarte-premiak detektatzera, ebaluatzea eta erantzutera, maila indibidualean zein familiarrean esku hartuz; hezkuntzan adikzioak prebenitzeko programak gauzatzera ikastetxeen bidez (lehen hezkuntzako 5. mailatik lanbide-heziketara eta PCIPera edo Lanbide Hastapeneko Kualifikazio Programara bitarteko ikasleei zuzendutako prestakuntza-tailerrak); pertsonak/familiak gizarte-larrialdi batek edo gizarte-arloko beste premia batek eragindako egoera kritikoetan daudenean, Udalean ditugun 5 udal-pisuetan artatzera; persona nagusien kolektiboaren bizi-kalitatea hobetuko duten zerbitzuak eskaintzera, eta jatorriz atzerrikoak diren gure auzotarren gizarteratzea sustatzera (laneratzea, administrazioa, gizarteratzea...).

Aurreproiektuan, **genero-berdintasuna sustatzeko** 464.000 euroko aurrekontua jasotzen da, 2023ko zenbatekoaren oso antzekoa (iaz 478.000 eurokoa izan zen).

Bestalde, **Garapen ekonomikoa, Enplegua eta Berrikuntza Sailaren programa guztien aurrekontua**, soldatak kenduta, ia ez da aldatu, 2,9 milioi euro ingurukoa baita. Horrela, 750.000 euro baino gehiago bideratuko dira enplegua sustatzeko. Horri esker, langabeentzako prestakuntza-ekintzak abiaraziko dira, horietako batzuk Unibertsitate Laboralarekin eta Armeria Eskolarekin lankidetzan, eta enpresei kontrataziorako laguntzak emango zaizkie. Bestalde, Enpresen Garapenerako eta Berrikuntza Programaren aurrekontua 1,4 milioikoa da. Hiriko industria- eta





merkataritza-sarearen aldeko ekintzak garatzen jarraitzeko balioko dute, eta, elementu traktore gisa —horixe izan da betidanik Eibarren ezaugarri— indartu egingo dira pertsona ekintzaileei laguntza ekonomikoa emateko eta berrikuntza sustatzeko ekintzak.

**Kulturara bideratutako aurrekontuari** dagokionez, 2024ko ekitaldi honetan ia 4 milioi eurokoa izango da, 2023an baino apur bat txikiagoa. Murrizketa hori gastu arruntari eusteko ahaleginaren ondorio da, eta ez kulturaren inbertsio txikiagoa egin nahi izatearen ondorio. Izan ere, gure herritarren bizi-kalitatea aberastuko duen kultura-agenda eskaintzen jarraitzeko konpromisoa ez da ahultzen, urtez urte indartu baizik.

Zenbateko hori, beste ekimen batzuen artean, adin guztietako jendearentzako eta inpaktuko kultura-jarduerak antolatzeke eta hedatzeko erabiliko da. Kultura-programazio askotarikoa, era guztietakoa, ekonomia guztientzat irisgarria eta erakargarria, baita gure ingurune hurbileko eta ez hain hurbileko udalerrientzat ere; Eibarko kaleetan eta plazetan, Portalean, Koliseoan eta Errebaleko ekipamenduan gozatu ahal izango dugun programazioa.

Era berean, gure hiriko kultura-elkarteen sare aberatsaren jarduerari laguntzeko balio izango du, alde bien (Udala eta kolektiboak) ekimenarekin, eibartarrek punta-puntako kultura-eskaintza jaso ahal dezaten, gure ingurunean erreferente dena.

Gainbegirada honi amaiera emateko **Gazteria Arloaren aipamen berezi bat egin nahi dut**, haren aurrekontuak goranzko joera nabarmenean jarraitzen baitu: 2023an 130.000 euro handitu bazen 2022arekin alderatuta, ekitaldi honetan beste 140.000 euro gehiago izango dira gehituko direnak, eta 775.000 euro baino gehiago izango dira biztanleria-tarte horretara berariaz bideratutako programak garatzeko erabiliko direnak. Biztanleria-tarte horri eskainiko zaion arreta lehenetsi egingo da beste udal-arlo batzuetan ere, hala nola Ekonomiaren Garapen, Enplegu eta Berrikuntza arlotik, ekintzailtza sustatzeko programekin, laguntzekin, bekekin eta prestakuntza espezifikoeekin.

Azken batean, hiri modernoago, erosoago, irisgarriago, euskaldunago eta ingurumenarekiko jasangarriago baterantz aurrera egiteko egindako aurrekontuak dira. Hiri honek konpromiso irmoa du bere balioekin (berdintasuna, bizikidetzatza, elkartasuna, sormena eta ekintzailtza), harro dago bere historiaz, baina baita bere orainaz ere, eta ilusioz beterik begiratzen dio etorkizunari.



## NEGOZIAZIOA UDAL TALDEEKIN

Egungo udal-talde sozialistak, aurreko agintaldi bietan gertatu zen bezala, gutxiengoan eta itun egonkorrik gabe jarraitzen du gobernatzen; beraz, berriro ere ezinbestekoa da akordioak lortzea Udaleko beste talde politiko batzuekin, 2024ko Aurrekontu Proiektuaren onespena bermatzeko.

Ostera, aurrekontu-zirriborroa aurrera ateratzeko aldeko botoen kopurua kontrako botoena baino handiagoa izateko behar matematiko nabari hori egon arren, sinetsita nago hirugarrenekin egindako akordioek balio dutela dokumentu bat indartu, aberastu eta hobetzeko, gure ikuspegitik gure hiriak behar duen dokumentua lehendik ere bazena.

Aurten ere, oposizioko talde bi nagusietako batekin akordio bat finkatzea nahikoa izango litzatekeen arren, talde guztiekin akordio batera iristeko aukerarik zegoen aztertu dugu, izan ere, gure ustez, adostasuna zenbat eta handiagoa izan, orduan eta hobeto lan egin genezakeelako herriaren onerako.

Horrelaxe ulertu du EAJ-PNV udal taldeak, eta, negoziazio-prozesu baten ondoren, zuzenketak sartzea erabaki dugu, batzuk udal-talde horrek proposatuak eta beste batzuk udal-talde sozialistak proposatuak, guztira 1.357.250,00 eurokoak.

Negoiazio horien emaitzak eta ondoriozko akordioak aberastu egiten dute 2024. urteko aurrekontua, hainbat jarduera-eremutan eragina duten proiektu eta neurriekin, hala nola azpiegituren alorrean, aparkalekuan, kulturean, kirolean edo hiriko elkarte-sarean, gure herriko une eta auzo guztiei on egingo dietena.

Zoritxarrez, oposizioko beste alderdi biek akordioa lortzeko ahalegina egin arren, eta EH-BILDU udal-taldearekin akordio hori lortzetik oso gertu egon den arren, talde hauekiko akordioak ez du emaitzarik eman.

Hala ere, azken urteotan Udal honetan gertatzen ari den bezala, EH-BILDUREkin edo ELKARREKIN PODEMOS- AHAL DUGU taldeekin akordiorik lortu ezin izateak ez du esan nahi gobernu-talde sozialistak, beste une batzuetan eta beste gai batzuen inguruan, akordioak lortzeko atea itxi duenik.

Uste osoa dut, azken asteetan alderdi politikoekin egindako negoziazioak balio izan duela, ez bakarrik 2024ko ekitaldirako Aurrekontu hau bermatzeko, baita etorkizunean negoziazio emankorrak bermatzeko dituzten irizpideak ezartzeko ere.

Azkenik, nabarmendu nahi dut aurrekontuen zirriborroa 2023ko abenduan aurkeztu zela, gobernu-talde honek egindako lan gogor baten ondoren, alkate honi gustatuko zitzaiona baino gehiago luzatu zena. Horrekin batera, beharrezkoa da gainerako talde politikoei zirriborroa aztertzeko eta zuzenketak aurkezteko epea ematea, bai eta horretarako deituko den osoko bilkuran Aurrekontuaren onespena bermatzeko



akordioak lortzeko beharrezko negoziazioa ere. Hori dela eta, gaur arte iritsi gara, eta uste dut 2025eko ekitaldirako joera hau bideratu eta kudeaketa arintzeko gai izango garela.

Amaitzeko, azpimarratu nahi nuke, 2024rako udal-aurrekontu honi dagozkion zuzenketek agiria aberastu egiten dutela alde batera utzi gabe, hiriaren premia eta proiektu estrategikoei egokitutako proiektua dela.

Gure bizilagunen bizi-kalitatea modernizatzeko eta hobetzeko bidean aurrera egiten lagunduko digun aurrekontu-proiektua. Hauxe izan behar da udal-gobernuaren helburua: umiltasunez eta arduraz lan egitea, etengabe, irmo eta sendo saiatuz Eibarko herritar guztien bizi-baldintzak hobetzeko, eta,aldi berean, baita herria bera ere, bizitzeko erakargarria eta atsegina izateko.

Eibar, 2024ko martxoaren 13an



ALKATEA

**JON IRAOLA IRIONDO**

